

MARIA NAZARETEKOA ETA TERESA LISIEUXKOA

Eleizaren historian zehar, oso ezagunak dira Andra Mariaren agerraldi batzuk. Hemeretzigarren eta hogeigarren mendeetako sonatuenak, Frantzian eta Portugalen jazotakoak ditugu. Bata, Lourdesen, 1858. urtean, Bernardette Soubirou, hamalau urteko neskatilari eta, bestea, Fatiman, 1917. urtean, hiru umetxori. Euron izenak: Luzia, Jazinta eta Frantzisko. Hamar, bederatzi eta zazpi urte hurrenez hurren ebezela.

Aurten beteten dira ehun urte, Andra Maria Fatiman agertu zala. Nire asmoa ez da, ez Lourdesko eta ez Fatimako agerraldiei buruz zeozer esatea. Honetaz asko eta gauza ederak esan eta idatzi dira. Agerraldi honeek gogoratzean, berehalaxe datorkidaz burura Jesusen berbak:

“Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jaun hori, gaiok jakintsuerei eta zuhurrei estaldu eta txikitxoei agertu deutsezuzalako” (Mt 11, 25).

Nire asmoa da, Lourdesko eta Fatimako agerraldien bitartean, jaio eta bizi izan zan neska gazte baten Andra Mariagarako esperientzia zerbait azaltzea. Teresa Lisieuxkoa 1873. urtean jaio zan eta hogeita lau urterekin hilko da 1897. urtean. Hau da, Teresita jaio baino hamabost urte lehenago, agertu zan Andra Maria Lourdesen. Eta Teresita hil eta handik hogeitaz urtera, agertuko da Zeruko Ama, Fatiman. Niretzat

oso interesgarria da aipatzea zelan bizi izan eban Teresitak Andra Mariaganako debozioa Lourdes eta Fatimako agerraldien bitartean. Orduko eleiztarren Ama Birjinarenganako esperientziekin konparatuta, gauza batzutan nahiko desberdina dirudi Teresitaren bizipenak. Bere ahizta Inesi (Paulina) egindako aitortzan argi ikusten da, ez egoala bat ere gustura. Aldi haretako sermoiekin, bai Andra Mariari buruz eta bai Jaungoikoari buruz, ez zan gustura sentitzen. Alde batetik Andra Maria lar goregi jarten ebelako eta bestetik, Jaungoikoaren amaigabeko maitasuna eta errukia baino, Jaungoikoaren haserrea eta hira eta justizia gehiegi azpimarratzen ebelako. Itzel sufritzen eban komunitatera etozan sermolariekin, Alexis Prou frantziskotarrarekin izan ezik. Horregaitik, atseginago jakozan bakar-bakarrik egiten ebazan Gogojardunak.

Zelakoa da Teresitak maite dauan Andra Maria? Honetaz zerbait adieraztea da nire asmoa.

“Andra Maria, Ama gehiago da Erregina baino”

Bere ahizta Paulinari (Sor Ines Karmelon) egindako aitortzan argi ikusten da ez egoala konforme Ama Birjinari buruz egiten ziran sermoiekin. Hil baino hilabete eta erdi aurretik, gorputza tuberkulosiz haustuta eta arima iluntasunez beterik dituala, aitortzen deutso bere “bigarren amatxori”:

“Apaiz izan nahi neuke Ama Birjinari buruz sermoia egin ahal izateko! Sermoi bakarrarekin nahikoa izango neuke honi buruz uste dodan guztia esateko. Hasteko zein gitxi eza gutzen dan haren bizitza agerraraziko neuke. Ez litzateke hari buruz gauza sinistezinik edota ezagutzen ez danik esan behar; esaterako, txiki-txikitan, hiru urte zituala, Ama Birjina maitasunez beteriko aparteko sentimenduz joan zala tenplura bere burua Jainkoari eskaintzera; beharbada, gurasoen men egiteko baino ez zan joan.

Zergaitik esan behar da, Simeon zaharraren hitz profetikoak dirala eta, handik aurrera Ama Birjinak Jesusen nekaldia begi aurrean euki ebala? ‘Saminezko ezpatak zulatuko deutsu bihotza’ esan zion agureak. Beraz, ene Amatxo, ez zen orain aldirako kontua, ongi ikusi dezakezunez; etorkizunerako aurreikuspen orokorra zen.

Ama Birjinari buruzko sermoi bat niretzat atsegingarri eta onuragarri izan dadin, haren benetako bizimodua ikusi behar dut, ez haren ustezko bizimodua; eta ziur nauzu, haren benetako bizimodua oso sinplea izan behar zuela. Iritsi ezinezko tokian aurkezten digute, imitagarri aurkeztu behar genuke, haren bertuteak agerraraziz; fedea guk bezala bizi izan zuela esan, horretarako ‘baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zuen’ esaten duen Ebanjelioaren frogak hartuz. Eta hain misterioitsua den beste pasarte hau ere bai: ‘Aita-amak miretsirik zeuden Simeonek haurraz esaten zuenarengatik’. Miresmen honek nolabaiteko harridura esan nahi du, ez duzu uste, Amatxo?

Badakigu, Ama Birjina Zeruko eta lurreko erregina dena, baina, Ama da erregina baino gehiago eta ez da esan behar bere dohainen bidez, eguzkiak, ateratzean, izarrak desagerarazten dituen bezalaxe santu guztien aintza iluntzen duenik. Jainko maitea! Hori bai bitxia! Bere umeen aintza desagerrarazten duen ama! Guztiz kontrakoa uste dut nik; nire iritzitan handitu egingo du, hainbatetan, aukeratuen distira.

Ongi dago haren dohainei buruz hitz egitea, baina ez da hori esan beharreko bakarra, eta sermoi batean, hasieratik bukaeraraino harridurazkoa esaten aritu behar bada, gehiegizkoa dugu! Beharbada, arimaren batek hain gizaki gorenaren aurrean aldentua ikusiko du bere burua eta ondoko hau esango: ‘Horrelakoa baldin bada, nahiko dut ahal den moduan dir-dir egitera baztertxo batera joatea’.

Ama Birjinak gure gainetik zeukan gauza bakarra, bekaturik ez egina zen, jatorrizko bekaturik gabea izatea, baina, bestetik, guk baino zorte txarragoa izan zuen hark, ez baitzuen izan maitatu ahal izateko Ama Birjinarik; hau, egiatan, guretzat pozbide bat gehiago eta harentzat pozbide handi bat gutxiago da” (KH 21.8.3)

Azkeneko pentsamendu hau gogoko dau Teresitak. Bost urte lehenago, Zelinari idatzitako karta baten hobeto azaltzen dau pentsamendu berbera, otoitz gisan:

“Nire Ama Birjina maitea, zu Amatzat zaitudalako ni zu baino zorionsuago naizela iruditzen zait, zuk ez baituzu Ama Birjina bat maitatzeko... egia da zeu zarela Jesusen Ama, baina Jesus hori oso-osorik eskaini diguzu... eta Jesussek gurutzean zegoela, gure amatzat izendatu zintuen. Horregatik gu zu baino aberatsagoak gara. Jesus geurea baita eta zu ere bai. Hasiera batean, apaltasunez, Jainkoaren Ama izatearen ohorea zuen Birjina dohatsuaren zerbitzaritxoia izan nendin nahi zenuen zu, eta hona hemen ni, gaixoa, ez naiz zure zerbitzaria bakarrik, baita zure alaba ere, zeu baitzara Jesusen Ama eta nire Ama! Zalantzarik gabe, Ama Birjina santuak irribarre egingo du nire xalokeriaz, baina diodana ez da egia hutsa baizik!...” (TG 137)

Errosarioa errezatzea

Bai Lourdesko eta bai Fatimako agerraldietan, errosarioak inportantzi handia izango dau. Lourdesen errosarioa eskuetan daukala agertzen da Andra Maria eta Fatiman errosarioa errezatzea izango da Ama Birjinaren eskari bat.

Baina zer dino Teresitak? Zelakoa da Teresitaren esperientzia? Esan behar da, Teresitak umetatik errosarioa errezatzen ebala baina bakarrik errezatzea aspergarri egiten jakon. Hona hemen bere berbak:

“Errosarioa neuk bakarrik erreztatzea (lotsa naiz aitortzen) penitentziako tresna bat jartzea baino gehiago kostatzen zait... Hain gaizki erreztatzen dudala ikusten dut! Errosarioaren misterioetan gogoeta egiten saiatu arren, ez naiz iristen neure gogoia hartan ezartzera... Luzaroan egon izan naiz harritia nindukan deboziorik ezagatik nahigabeturik, nik Ama Birjina hain maite nuenez gero, erraz gertatu behar baitzitzaidan beraren omenez hari atsegin zaizkion otoitzak egitea. Orain guxtiago nahigabetzen naiz; nik pentsatzen dut Zeruetako Erregina nire Ama izanik, ikusiko duela nire borondate ona eta horrekin poztuko dela.

Batzuetan, nire izpiritua hain lehortasun handian dagoenean, Jainko onarekin bat egiteko pentsamendu bat moldatzea ere ezinezko zaidala. “Aita Gure” bat erreztatzen dut astiro-astiro, eta gero aingeruaren agurra. Orduan otoitz hauek liluratu egiten naute eta nire arima askoz gehiago elikatzen dute arin-arinka ehunka aldiz erreztatuta baino... Ama Birjinak ez dagoela haserre erakusten dit; nik dei egin orduko sekula ez nau babestu gabe uzten. Kezkaren bat, larrialdiren bat datorkidanean, berehala jotzen dut harengana, eta beti hartzen ditu bere gain nire ardurak, Amarik samurrena bezala” (C.Esk. 25i – 26^a).

Teresita mistika eta neska gazte kontenplatibo bat dogu. Ederra benetan haren otoitz esperientzia:

“Xalotasunez esaten diot Jainko onari esan nahi diodana, esaldi ederrak egin gabe, eta hark beti ulertzen dit... Nireztat otoitza bihotz-eragin bat da, zerurantz zuzendutako begirada soil bat, esker oneko eta maitasunezko oihu bat da atsekabe artean nahiz poztasun artean. Hitz batez, handia den zerbait da, arima zabaldu eta Jesusekin bat egiten nauen naturaz gaindiko zerbait” (C Esk. 25^a).

Bere izeko Guerin andreari:

“Sagrario aurrean nagoenean, ez naiz gure Jaunari gauza hauxe baizik esateko gauza: ‘Ene Jainko, badakizu zuk maite zaitudala’. Badakit nire otoitzak Jesus ez duela nekatzen” (TG 152).

Teresita azkeneko egunetan, oso gaixorik egoala, bere ahizta Zelina arduratzen zan gauero beilatzen eta sarritan joaten zan ikustera. Gau baten ikusten dau ahizatxo errukarria eskuak alkartuta eta begiak zerura begira. Eta dinotso Zelinak haserrez:

- “Zer egiten zagoz holan?, lo egin behar dozu!”
- “Ezin dot lorik egin, larregi sufritzen dot, otoitzean nago”
- “Eta zer esaten deutsazu Jesusi?”
- “Ezebez, maitatu!”.

Otoitz hunkigarria, otoitz zirrargarria, gorengo mistikoen otoitza!

Zergaitik maite zaitudan, oi Maria!

Nahiz eta hogeita lau urterekin hil, gauza asko eta ederrak idatzi ebazan Teresitak. Baita Andra Mariari buruz ere. Bere idazlanetan sarritan aipaten dau Zeruko Ama. Berrehunetik gora, gitxienez!. Bere berrogei eta hamalau olerkietatik, zortzi Andra Mariari eskeinuta dagoz eta beste hamasei olerkitan baten edo bitan gitxienez aipatzen dau Zeruko Ama.

Bere bizitzan, azkenekoz idatzi ebazan lerroak ere, Ama Birjinari eskeinuta dagoz. Gorputza tuberkulosiz haustuta eta arima iluntasunez beteta, eskua dardarka dauala, idazten dau:

“Oi Maria, Zeruko Erregina banintz, Teresa izan nahiko neuke, zu Zeruko Erregina izan zaitezen” (21. Otoitza).

Teresitaren lanik ederrena Andra Mariari buruz:

“Zergaitik maite zaitudan, oi Maria!” dogu. Hil baino lau hilabete lehenago idatzi eban, 1897ko maiatzean. Andra Mariaren “benetako bizitza da, eta ez ustezkoa” (cf. KH 21.8.3). Bere esanetan, hortxe laburbiltzen ditu Ama Birjinari buruz esan leiken guztia (cf. KH 21.8-3).

Olerki hunkigarria dogu. Baditu estrofa ederrak. Baita zoragarriko irudiak ere:

“Ulertzen dut nik, zure arimak, ibar gozo eta apalak, Maitasun-Itsaso den Jesus barruan eduki dezakeela” (TO 54, 3, 7-8).

“Zure maitasun-hitzak dira etorkizuneko mendeak lurrindu behar dituzten arrosa mistikoak” (TO 54, 7, 5-6).

Ez jakoz falta esaera bikainak:

“Maitatuz sufritzea, zorionik garbiena da” (TO 54, 16,4)

“Maitatzea guztia ematea da eta nork bere burua ematea” (TO 54, 22, 4).

Andra Mariaren bitzitza kontatzeko Ebanjeliora joten dau Teresa gazteak:

“Ebanjelioetan zure bizitzari buruz gogoetaka ariz, zuri begiratzen eta zugana hurbiltzen ausartzen naiz; ez zait zail egin sinistea zure alaba naizela hilkor ikusten bazaitut eta sufritzen ni bezela (TO 54, 2).

Andra Mariaren biografia idaztean, Ama Birjinaren pozezko eta argizko eta nekezko misterioak ditu gogoan. Ez, ostera,

aintzazkoak, ebanjelioek ez dabelako horretaz ezertxo esaten. Mariaren aintzazko misterioak, Jesusek berak pertsonalki kantatuko dituela, dirudi:

Donibaneren etxea gordeleku bakar bihurtzen da,
Zebedeoren semeak jabetu behar du Jesusen lekuaz...
Ebanjelioak ematen duen azkenengo zertzelada da;
gehiago ez dit hitz egiten Zeruetako Erreginaz.
Baina, oi ene Ama maitea, haren isiltasun sakonak
ez ote digu adierazten *Betiko Hitzak berak nabiko
dituela kantatu zure bizitzako sekretu denak,
zure seme-alabak*, Zeruko Hautatuak, liluratzeko? (TO 54, 24).

Olerki hau, ez bakarrik Andra Mariaren biografia, aldi berean, Teresitaren autobiografia ere bada. “Ebanjelioak irakasten dit... eta bihotzak esaten dit” dinosku (cf. TO 54, 16). Mariaren ikono bat dirudi Teresa Lisieuxkoak. Bere barneko esperientzia onarturik, ze ederto abesten dabezan, Ama Birjiñaren ezereztasuna eta karitatearen eskabideak eta batez ere “fede-gauean bilatzen duen arimaren eredu” jarten deusku-nean Zeruko Ama. (cfr. TO 54, 15). Estrofa hunkigarri hau lekuko:

“Nazareten, Ama graziaz betea, badakit nik
oso pobre bizi zinela, ez zenuela nahi besterik;
ez gainezkaldi, ez mirari, ez estasiak edertzen
dute zure bizitza, oi Hautatuen Erregina!...
Txikien kopurua lurrean handi-handia da,
haiek dardara gabe jaso ditzakete begiak zugana
bide arruntetik ibiltzea duzu zuk gogoko.
Ama berdingabea, zerura haiek gidatzeko” (TO 54, 17).

Bernardette Lourdeskoak eta Teresa Lisieuxkoak eta Luzia eta Jazinta eta Frantzisko Fatimakoek Andra Mariarenganako izan ebezan esperientziak eta bizipenak bardinak ala desbardinak ala antzekoak izan ete ziran? Nik neuk esan neikeana hauxe da: Teresitaren Ama Birjinarenganako bizipenak oso gogoko eta atsegin jatazala.

A. Olea